

# **Euskal Herriaren Egoeraren Azterketa**

eh´ 07 Nazio Eztatidatik eh´ 08 Nazio Eztatidara



## **AURKIBIDEA:**

Sarrera.....	3
Euskal Herriaren Egiturazko egoeraren gako nagusiak.....	4
Euskal Herriak bizi duen testuinguru politikoa.....	5
Ondorio nagusiak.....	9

## 1. SARRERA

Euskal Herriak Nazio zapaldu gisa bizi duen egiturazko egoerak ez du aldaketa sakonik ezagutu joan den urte honetan. Jakina da, Nazio gisa estatu espainiar eta frantsesaren aldetik jasaten dugun egiturazko zapalkuntza ez dela egun batetik bestera gaindituko. Izan ere, egoera hori Euskal Herrian hamarkadetan zehar errotua izan da. Gaur Euskal Herria ez da bere buruaren jabe. Madril eta Parisen hartzen dira gure Nazioari buruzko erabaki nagusiak. Horrek, ondorio lazgarriak ditu Euskal Herriarentzat eta baita euskal herritarrontzat ere.

Edonola ere, bizi dugun egoera zaila dela aintzat hartuta, ezin da bazter utzi Euskal Herria aldaketa garrantzitsuen aurrean egon daitekeela. eh'07 Nazio Eztatbaidan, azken urteetan autodeterminazioaren eta lurraldetasunaren alde sortu baldintzak direla medio, aldaketa politikoaren norabidea eta nolakotasuna jokoan dagoen auzi nagusia dela nabarmentzen genuen. Joan diren hilabeteotan egondako mugimendu ezberdinek hori berresten dutela esan daiteke. Horrekin batera, Euskal Herrian Nazioa eraikitzeke egiten ari den lanak ere bere eragina du egoeraren azterketa egiterakoan. Nazio gisa emeki ematen ari garen urrats ezberdinek, egituraz bizi dugun egoera gainditzeko urrats esanguratsuak ekar ditzakete etorkizun ez hain urrunean.

## **2. EUSKAL HERRIAREN EGITURAZKO EGOERAREN GAKO NAGUSIAK**

Euskal Herrian bizi dugun egiturazko egoeraren gako nagusia, **NAZIO aitortza eza** da. Euskal Herria estatu espainiar eta frantsesak ukatua da eta Nazio bezala ez du aitortzarik. Euskal Herriaren existentzia eta identitatea ukatzeak gatazka politikoa eragiten du. Finean, Euskal Herria subjektu politiko gisa ez onartzeak, egiturazko egoeraren gako diren beste hainbat ondorio dakartza:

- **Eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa.**

Euskal Herriaren Nazio eskubideak eta euskal herritarron eskubideak era sistematikoan urratzen dira Euskal Herrian. Indarrean den egituraketa juridiko- politikoa eta demokrazia ezak aipatu eskubideen urraketa ahalbidetzen du.

- **Lurralde zatiketa.**

Euskal Herriari lurralde zatiketa ezartzen zaio. Estatu espainiar eta frantsesaren artean banaturik dago gure herria, baita eremu autonomiko eta legal ezberdinetan ere. Lurralde zatiketari oinarrituriko egituraketa juridiko politikoa, euskal herritarrok libreki adierazitako borondatearen ondorioz baino, ezarpenez dago indarrean.

- **Erabakitze eskubidea gauzatzeko ahalmen eza.**

Euskal herritarrok ez dugu gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitze eskubidea aitorturik eta beraz, gauzatzeko modurik ere ez. Gure Nazioaren etorkizuna espainiar eta frantses estatuak erabakitzen dute, euskal herritarron hitza adierazteko bideak ukatuz eta antolakunde eta instituzioen erabakiak baliogabetuz.

Honen guztiaren ondorioz, XXI. mendean gure Nazioak ez du bere biziraupena ziurtaturik. Areago, Nazio gisa antolatu, egituratu eta garatzeko mekanismo juridiko eta politikoen gabeziak, Euskal Herriari bere buruaren jabe izateko ezintasunak ezartzen dizkio. Horrek, Nazio baten ikuspegitik, esparru estrategikoetan gabezia nabarmenak dakartza: instituzio nazional egokien gabezia; euskararen berreskurapen osoa lortzeko ofizialtasun eza eta hizkuntza politikarik ez izatea; hezkuntza sistema nazionalaren hutsunea; politika ekonomiko eta sozial propiorik ez izatea; baliabide eta mekanismo ekonomikoen gabezia (banku nazionala edo eta politika fiskalak kasu), Nazio gisa nazioartean ordezkaritza propiorik ez izatea... Nazio gisa egituratu eta garatzeko ezinbestekoak diren zutoinen gabezia agerizkoa da Euskal Herrian.

Egungo antolamendu juridiko politikoa Euskal Herriak jasaten duen egiturazko zapalkuntza ahalbidetzeko tresna eraginkorra dela esan daiteke. Nazio gisa bizirauteko eta garatzeko, burujabetza osoa lortzea ezinbestekoa du Euskal Herriak.

### 3. EUSKAL HERRIAK BIZI DUEN TESTUINGURU POLITIKOA

Esan bezala, aipatu egiturazko egoerak, Nazio egiten gaituzten zutoinak behar adina eraikirik eta garaturik ez izatea dakar. Egoera honetan, bi estatuek daramaten estrategia erabakigarria da. Zapalkuntza iraunkor horren baitan, neurri eta eraso berriak pairatzen ari gara. Horrela uler daitezke azken hilabeteotan alor ezberdinetan bultzatzen ari diren neurriak eta murrizketak:

- Institutuzio ezberdinetan bandera espainolaren ezarpenean estatu espainiarrak eman dituen urrats berriak: Bilbo, Donostia, Durango...
- Oro har, euskararen egoera kezkarria berresten duten datu berriak. Bereziki Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoari dagozkion datu larriak aipa daitezke.
- Hezkuntza sistema nazionala eraikitzeke urratsen aurrean jartzen ari diren trabak.
- Kirolaren esparruan, Euskal Herriak Nazio gisa nazioartean lehiatu ahal izateko galarazpenak.
- Eredu sozialari eta lurrari loturik ezartzen ari diren proiektuak. Herritarrei hitza eman eta erabakitzea urratzen ari zaielarik.
- Lehen sektorearen etorkizuna larriki baldintzatzen duten neurriak.
- Laborantza Ganbararen kontra ireki berri den bidea eta aurre ikusten den epaiketa.
- Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian politika fiskalaren kontrako neurriak.
- Emakumeen eskubideen aldarriaren kontrako jazarpena. Adibide gisa, Nafarroa Garaian martxoaren 8an jasotako gertaerak...
- ...

Egungo antolamendu juridiko politikoan oinarrituz, Euskal Herriaren biziraupenaren eta garapenaren ikuspuntutik estrategikoak diren eremu eta alorretan neurri berriak ezartzen ari dira. Nazio izaera ahuldu, lurralde zatiketari sakondu eta Euskal Herriaren garapena indargabetzeko praktika da indartu dutena.

Honen guztiaren aurrean, Euskal Herrian, milaka gizon eta emakumeren eta ehunka eragileren eguneroko eraikuntza lanaren bidez, egiturazko egoera gaituzteko lana ez ezik, Euskal Herria egituratu eta bere buruaren jabe izateko ahaleginak ageri zaizkigu:

- Udalbiltza berregituratzeko egiten ari diren ahaleginak.
- Ikurrinaren alde abian jarritako ekimen herritarrak eta mobilizazioak.
- Euskal Unibertsitatea sortzeko emandako urrats garrantzitsuak. Euskal Herriarentzat estrategikoa den proiektu honen sorrera bultzatuko duen Fundazioa abian jarri izana nabarmenduz.
- Euskal Curriculumaren definizioan aurreraturikoa eta egitasmoaren aurkezpen publikoa.
- Euskal selekzioaren aldeko aldarriaren aldeko indarren metatzea, bereziki azpimarratuz abenduan egindako manifestazio jendetsua.
- Nazio auzolan praktika berrien garapena, lurralde zatiketa gainditzen joateko praktika eraginkor gisa. Hor koka daiteke Zuberoaren garapena helburu duten harreman eta dinamikak.
- Ezartzen ari diren eredu sozial eta proiektu ezberdinen aurreko ekimen sozial ugariak: errauskailuen edota abiadura handiko trenaren aurkakoak aipa daitezke. Zentzu horretan, lurralde ezberdinetako udalerrietan egin diren herri galdeketak eta herritarren iritzia azpimarra daitezke.
- Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Kartaren definizioa.
- ...

Honek guztiak, estatu espainiar eta frantsesak Euskal Herriarekin duten talka erakusten digu. Hots, Euskal Herria estatuen ereduaren baitan urtzeko ahalegin etengabeak, gure Nazio izaera nabarmen kaltetzen du. Baina era berean, hemen, dagozkion eskubideei muzin egiten ez dien Nazio bat badela ere erakusten digu. Euskal Herrian, herri sektoreen eta herritarren bultzadarekin, eraikuntza lanak eta aldarri ezberdinek egoera berri bat lortzea dute helburu. Euskal Herria Nazio gisa onartzetik hasi eta dagozkigun eskubide guztiak erdiesteraino.

Arestian aipaturiko aldagaiok guztiak Euskal Herrian bizi dugun testuinguru politikoaren erdian kokatzen dira. eh'07 Nazio Eztabaidan, Euskal Herriaren burujabetzaren norabidean urrats esanguratsuak emateko, datozen urteetan beharrezkoa den aldaketa politikoaren oinarri nagusiak finkatzen genituen:

- Euskal Herriaren Nazio aitortza.
- Eskubide kolektibo eta indibidualak bermatzea.
- Lurraldetasuna, zazpiak bat.
- Autodeterminazio eskubidea, erabakitze eskubidea.

Euskal Herriaren biziraupen eta garapenaren ikuspuntutik, Nazio gisa egituratu ahal izateko, oinarri horiek barne bildu behar dituen marko juridiko-politikoaren aldaketa funtsezkoa da. Hain zuzen ere, aipatu dugun bezala, oinarri nagusien urraketak ahalbidetzen du egun bizi dugun egiturazko zapalkuntza egoera.

Elkarrizketa eta negoziazio prozesuaren hausturaren ostean, iaz abagune politikoan aldaketa nabarmena gertatu zela ondorioztatzera iritsi ginen. Enfrentamendu egoera nabarmentzen joan da hilabeteotan zehar. Honek guztiak bizi dugun testuinguru politikoa ezaugarritu ez ezik, agerizkoa da datozen hilabeteetako egoera ere ezaugarrituko duela.

Bi estatuen aldetik eskubideen urraketan ematen ari diren urratsetan jauzi kualitatibo bat ondoriozta daiteke: Batasunaren kontrako atxiloketak eta espetxeratzeak; ilegalizazio bidean sakontzeko urrats andana; makro epaiketak, epaiak- espetxeratzeak eta epe laburrean izango direnak (18/98, amnistiaren aldeko mugimendua, Udalbiltza edo Euskaldunon Egunkaria); torturen ugaltzea; euskal preso politikoekiko neurri berriak (bizi arteko zigorrak, gaixo larrien egoera...)... Hain zuzen ere, 2003an Nazio Eztatanda Gunea sortu zenean, eskubide murrizketa hauen guztietan urratsak ezagutzen ari ginen. Kezka horretatik, gure Nazioaren biziraupenaren eta garapenaren alde indarrak metatu eta Nazio gisa aritzeko premia nabarmenduz. Aldiz, denborak aurrera egin ahala, errepresio bide hauetan sakondu eta Euskal Herriaren eraikuntzaren alde esparru batean edo bestean aritzea debekatu eta zigortzeko ematen ari diren jauzien tamainak kezka busti behar gaitu. Euskal Herriarekin amaitzeko, ezagutu gabeko estrategia abian jarri dute bi estatuek, batez ere espainiar estatuak.

Izan ere, kezka nabarmentzen ari garen egoera, iazko udazkenean jokoan zegoen auzi politikoari lotu behar zaio. Testuinguru honetan, bi aukera nagusi ageri zitzaizkigun: egun indarrean den antolamendu juridiko-politikoaren baitan jarraitzea edo Euskal Herriaren Nazio aitortzan oinarrituriko aldaketaren norabidean sakontzea. Horixe izan zen elkarrizketa eta negoziazio prozesuan jokoan egon zen auzi nagusia eta horixe bera izan da urte honetan zehar egon diren mugimendu ezberdinetan ardatz nagusia. Hain zuzen ere, aipaturiko errepresio estrategia sakon horrek, egungo antolamendu juridiko-politikoaren errotzearen xedea baino ez du.

Bide horretan, estatu espainiarrak, Euskal Herria Nazio gisa ukatu eta gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidearen kontrako jardura jorratu du. Esan bezala, aldaketa bultza ditzaketen sektoreak indargabetu asmoz errepresio neurri berriak hartuz. Bilakaerak erakusten du espainiar estatua ez dagoela egungo antolamendu juridiko-politikoaren gainditzeko asmoan. Ez dagoela inondik ere, Euskal Herrian autodeterminazioaren eta lurraldetasunean oinarrituriko prozesu bat irekitzeko borondatean. Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzeko jarrera baino, hori oztopatu eta ukatzeko saioan ari da, EAEko gobernutik abiatu zen kontsulta saiakeraren ukazioarekin ari erakutsi duen bezala. Areago, estatu

espainiarrak, bere estatu eredua errotzeko, hamarkadetan Euskal Herriarekiko izan duen zapalkuntza jokabideari jarraiki, sakontasun handiko erabakiak hartzen ari da. Euskal Herriari bere buruaren jabe izateko aukera oro ixteko urrats gisa kokatu behar direnak.

Estatu frantsesak berriz, bide ezberdinez bada ere, Euskal Herria ukatzen jarraitzen du eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan indartzen doazen aldaketarako aldarrikapenen aurrean paper aktiboa jokatzen du. Zentzu berean doazen herri sektore ezberdinen indargabetzean emandako urrats berriak horren adibide argiak dira. Baina hortik haratago, hiru lurraldeen onarpen instituzionalerantz eman daitezkeen urrats berrien aurrean, lehenago egin duen gisan, urrats horiek gelditu eta egungo zapalkuntza eredua iraunarazteko egitasmoak bultzatzen ditu. Asimilazio egoeran sakondu eta Euskal Herriaren onarpenean oinarrituriko indarren metatzea eta aldarrikapenen ugaltzea gelditzeko.

Estatuek Euskal Herriarekin duten gatazka politikoak, Europaren barruan garrantzia badu. Europar Batasunaren egituratzeari buruzko eztabaidak ugaltzen doazen honetan, autodeterminazio eta burujabetza prozesu ezberdinak eta estatu berrien sorrera azpimarra daitezke. Horiekin bat, beste hainbat Nazioen aldarrikapenen sendotzea ageri zaigu. Horrek, Euskal Herria Europaren baitan Nazio burujabea izatea posible dela nabarmentzen du.

Eh07-eh08 epealdia horretan izan diren gertaera nagusiak, aurretik aipatzen diren ezaugarriekin garatu dira. Hala nola, Aberri Eguna, Espainiar Gorteetarako hauteskundeak, Herriko Etxeetako hauteskundeak eta hauteskunde kantonalak, herri kontsultaren inguruko eztabaida...

Era berean, hilabeteotan inizatiba ezberdinak aipatu behar dira: abertzale herritarren artean elkarlana lantzeko bideak; horren baitan, hutsune guztiak tarteko, Aberri Eguna eta Nazio Plazak eskaini dituzten aukerak eta egoera zailean bildutako indarrak; Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoarako autonomiaren aldeko inizatibak; EH Bai hauteskunde koalizioa eta lorturiko emaitzak, Maltzagako aldarria edo 1512- 2012 Nafarroaren burujabetza lapurtu ziguteneko testuinguruan abian jarri diren lehen ekimenak...

Euskal Herria ataka garrantzitsuan dago. Eta honen aurrean, abertzaleoi eta oro har egunerokoan Euskal Herriaren aldeko lanean gabiltzan eragile, herri sektore eta herritarroi, Nazio bezala aurrera begira egin beharrekoa aztertzeraz eraman behar gaitu. Hots, gure Nazioak bizi duen egoera sakon hausnartu eta datozen urteetan Nazio gisa dagozkigun eskubideak eskuratzeko indarrak metatuz garatu beharreko Nazio Estrategia finkatzeko premia agerizkoa da.

#### 4. ONDORIO NAGUSIAK

- Euskal Herriak une garrantzitsua eta zaila bizi du. Nazio gisa bizi duen egiturazko zapalkuntza egoera biziki kezkarria da. Egoera hori ahalbidetzen duen antolamendu juridiko-politikoa gainditzeko premia agerizkoa da.
- Aipatu antolamendu juridiko-politikoa gainditzeko aukeren aurrean, aukera hori ezinezko bihurtzeko estatuak gure Nazioaren kontrako estrategian urrats sakonak ematen ari dira. Estrategia horren sakontasunaz jabetzea garrantzitsua da.
- Euskal Herrian, Nazio aitortzan, autodeterminazioan eta lurraldetasunean oinarritzen den aldaketaren aldekoasuna handia da. Bai eguneroko nazio eraikuntzaren bitartez islatzen dena eta baita aldarrikapenaren bidetik ageri dena ere.
- Nazio eraikuntzan egin ahaleginek eta emandako urratsek, bide horren eraginkortasuna erakusten dute. Praktikan, Nazio eraiki eta egituratzeko estrategia horretan nabarmen sakondu beharra dago. Euskal Herriaren aitortza politikorantz Euskal Herriak egin beharreko bidean pauso eraginkorrak ematea ezinbestekoa da.
- Euskal Herriaren burujabetzaren alde gauden guztiok, ezberdintasunen gainetik, aurrera begira Nazio burujabe baten lorpenean bultzatu beharreko Nazio Estrategian indarrak biderkatzea dagokigu.

Euskal Herrian, 2008ko iraila.

